

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

NAVARIDASKO UDALA

Datu pertsonalen beste fitxategi bat sortzeko erabakia

Navaridasko Udalbatzak, 2018ko apirilaren 24ko ohiko osoko bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste: datu pertsonalen beste fitxategi bat sortzea.

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, datu pertsonalen babestekoak, helburu du, datu pertsonalen tratamenduari dagokionean, bermatzea eta babestea pertsona fisikoen askatasun publikoa eta funtsezko eskubideak, batez ere, pertsonaren eta familiaren ohorea eta intimitatea.

Datu pertsonalen babesaren Lege Organikoaren 20. artikulua xedatzen du ezinbestekoa dela xedapen orokorra ematea eta Estatuko Aldizkari Ofizialean edo dagokion aldizkari ofizialean argitaratzea, administrazio publikoen fitxategiak sortzeko, aldatzeko edo ezabatzeko.

Datu pertsonalen babesaren Lege Organikoaren 41.1 artikuluan eta otsailaren 25eko 2/2004 Legeak, Datuak Babesteko Euskal Agentzia sortzearenak, 2. artikuluan ezarritakoaren arabera, Datuak Babesteko Euskal Agentziaren menpe dago toki erakundea datuak babesteko orduan. Horrela, urriaren 18ko 308/2005 Dekretuak, otsailaren 25eko 2/2004 Legea, datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoa, garatzen duenak, 2. artikulua betez, toki erakundeek sortu, aldatu eta ezabatuko dituzte euren fitxategiak kasuan kasuko udal ordenantzaren bidez edo beste edozein xedapen orokor baten bidez, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, eta legedi autonomikoak jasotakoaren arabera.

Udalbatzak aho batez erabakitzen du:

Lehenengoa. Onartzea Navaridasko Udalak kudeatuko duen datu pertsonalen fitxategi bat sortzea, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, datu pertsonalen babesari buruzkoak, eta otsailaren 25eko 2/2004 Legeak, datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoak, ezarritako aplikazio eremuan. I. eranskinean jasotzen da eta bertan azaltzen dira alderdi guztiak.

Bigarrena. Erabaki honen edukia osorik argitaratzea ALHAOn eta udalaren ediktu taulan.

Hirugarrena. Erabaki hau Datuak Babesteko Euskal Bulegoari jakinaraziko zaio, horretarako berariaz ezarritako prozedura normalizatuaren bidez, fitxategiak DBEBren Datuak Babesteko Erregistroan inskriba ditzan, eta Datuak Babesteko Espainiar Bulegoaren Erregistroan sar dadin.

I. ERANSKINA

- a) Fitxategiaren izena: bideo-zaintza.
 - b) Fitxategiaren xedea eta harentzat aurrez ikusitako erabilerak: udal instalazioetako segurtasuna.
 - c) Zer pertsonaren edo talderen datuak lortzen diren: bideoz zaindutako eremutik dabilzan herritarrek.
 - d) Datuak biltzeko prozedura: udal eraikinetan jarritako kameren filmaketa bidez.
 - e) Fitxategiaren oinarrizko egitura: informatizatua.
 - f) Fitxategian sartuko diren datu pertsonal moten deskribapena: irudia.
 - g) Datuen lagapena: justizia administrazioa eta segurtasun indar eta kidegoak.
 - h) Fitxategiaren ardura duen administrazioaren organoa: Navaridasko Udala.
- Datuak eskuratu, zuzendu, deuseztatu eta kontra egiteko eskubideak zein zerbitzu edo unitatetan gauza daitezkeen: Navaridasko Udala. Samaniego alegialariaren kalea zk.g. 01309, Navaridas, Araba.
- j) Goi mailako segurtasun neurriak.
- Guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da hau.

Navaridas, 2018ko maiatzaren 8a

Alkatea

MIGUEL ÁNGEL FERNÁNDEZ GONZÁLEZ